



ERRE ZURE MUGIKORRA!

Egileak:quematumovil@pimienta.org

★1.-Sar hitza.

Lan hau telefono mugikorren inguruko mitoak eta egiak argitzeko borondatez sortu zen: entzute zein lokalizazio aukerak, e.a.

Kontrol polizialaz gain, hitz egin nahi genuen kontrol sozialari buruz, eta teknologia mota honen eraginari buruz gure harremanak izateko eta komunikatzeko ereduetan. Azkenik, teknologia honen ondorio sozialak eta ekologikoak aztertu nahi izan ditugu, baita osasun arlokoak ere.

Badirudi ahaztu dugula orain hamar urte mugikorrik ez geneukala, eta gustoko ez baditugu eurak gabe bizi gaitezkeela. Bai, bai.

Egi-egia esan: Ikaragarri gustatuko litzaiguke zure mugikorra erreko bazenu, eta oso arrazoi onak emango dizkizugu hala egin dezazun edo, behintzat, zalantza egin dezazun.

*Klandestinitatearen metodoa hartu dute.
Ez dute inoiz mugikorrik erabiltzen (..)*

Michèle Alliot-Marie-k, Frantziako barne ministroa zenean, Tarnac kasuko “subertsiboen” atxiloteten inguruan. 2008ko azaroa.



2.- Kontrol poliziala.



2.1.-Entzuteak.

Zuri entzuteko eta besteei entzuteko erabil daiteke. Mugikor batetik hitz egiten ari zaren bitartean (baita telefono finko batetik ere), poliziari oso erraza zaio, telefono-konpainien kolaborazioarekin, zure solasa grabatzea.

Estatu espainiarrean ez dago legezko entzuketari buruzko datu ofizialik, baina datu horiek egon badaude beste europar herri batzuetan. Estatu frantziarrean, 2008an 30 000 entzuketa legal inguru egin ziren, epaile baten aginduz. Proportzioan, Italian hamabost bider entzuketa gehiago; Holandan hamabi bider gehiago, hiru bider gehiago Alemanian...Frantziar zifrak 2001. urteko datuekiko konparazioan, %440eko igoera suposatzen du. Begi bistakoa denez, igoera honek mugikorraren hedapenarekin dauka zuzeneko lotura. Gainera, mugikorraren entzuteak askoz ere merkeagoak dira: Estatu frantsesean, mugikor baten entzuketak 88 euro balio ditu; finko batenak aldiz 497 euro.

Epaile batek agindu ditzaken entzuketez gain, estatuak orokorrean badituzte hainbat mekanismo poliziei euren kasa jarduten ahalbidetzeko, “anti-terrorismoa”, “segurtasun nazionala”, “inteligentzia ekonomikoa” edota “talde subertsibo”en jazarpenaren aitzakiarekin.

Entzuketaren prezioa horrenbeste jaitsi baldin bada, teknikak izugarri erraztu direlako da. Honezkero ez da beharrezkoa kableetan gailu bat jartzea edo zure etxean sartzea, honek dakartzan arrisku eta gastuekin. Komunikazioen digitalizazioarekin, aski da programa informatiko batekin (estatu espainiarrean SITEL), eta klik batzuekin, populazioa zelatatzeke.

Zure mugikorra ez badago itzalita eta bere bateriaz bananduta, teknikoki posible da giro-mikrofono bezala erabiltzea, bai zuri baita ingurukoei entzuteko ere. Teknika honen erabilpena lehen aldiz 2003. urtean eman zen argitara, mafiaren kontrako FBIaren ikerketa baten harira. FBIak egiten duen eskaera judizialean “mugikorrean kokatua dagoen entzuketa-sistema” batez mintzo da. Operazioaren ñabardura teknikoak ez ziren azaldu, baina adituen arabera litekeena zera da: FBIak lortu zuela, mugikorra euren eskuetan eduki gabe, bertan kokatzea entzuketa sistema, eta beronek funtzionatzea bai mugikorra piztuta egonda baita itzalita zegoenean ere, nahiz eta betiere bateria jarrita.

Alabaina, gaur egun giro-entzuketa hauek nahiko konplikatuak dirudite egiteko. Beraz ez gara zertan paranoian erori behar, baina oso garrantzitsua da jarduera seguruak

gara ditzagun, batez ere ez baitakigu zer den urte batzuk barru egiteko gauza izango direna.

Mugikorren belaunaldi berriekin (iPhone, BlackBerry, e.a.), ahulgune berriak sortzen dira. Gailu hauek ordenagailu txiki bezala funtzionatzen dute, sistema eragile konplexuagoekin, Applek, Microsoft-ek eta abarrek garatutakoak. Enpresa hauek ezagunak dira lehentasuna emateagatik euren finantza-interesei, beren produktuen segurtasunari baino; eta indar polizialekin eskuz-esku lan egiteko prestutasunarengatik. Windows-ekin funtzionatzen duen ordenagailu bat birusek etengabe kutsatzen duten bezala, sistema eragile hauekin funtzionatzen duen edozein mugikor ere birusek eraso dezakete, edota edozein espioi-programak ere, poliziek zein norbanakoek gidatuta.

2007an, Rik Farrow segurtasunean adituak iPhoneak duen segurtasun akats bat argitaratu zuen, zeinari esker hacker batek gailua erabat kontrola dezakeen, besteak beste, itzalita ala piztuta egon, giro-mikrofono gisa erabiltzeko. Gogora dezagun, momentuz iPhone-ari ezin zaiola bateria kendu.

Zure mugikorra “hackeatzeko” beste ate bat, egungo gailu gehienek daramaten Bluetooth teknologia da. Dokumentazio andana dago edonork, adibidez, ordenagailu eramangarri baten bidez, zure datuekiko sarrera eduki ahal dezan.

Poliziak entzun zaitzake eta hori ez da batere berria. Teknika berriok lana erraztu eta merkatu baino ez diete egiten. Baina entzuketak ez dira telefonoetara mugatzen; poliziak oraindik mikrofono espioiak jartzen dabil ekintzaile politikoen zelatatzeetan, 2004ko “Cervantes” operazioan frogatu bezala, Italian. Mikrofono ikaragarri indartsuen bidez zein beste medio batzuen bidez entzun dezakete ere.

“Mugikorrari esker, jada ez dut behar goizean goizegi jaikitzea, ezta gauean beranduegi oheratzea ere, norbait zelatatzeko.”

Frantziar txakur batek, 2007ko iraila.



2.2.-Lokalizazioa

Uneoro jakin daiteke non zauden.


Mugikorraren teknologiaren alde benetan berritzaile bat hori da: Lokalizaziorako etengabeko eta zuzeneko aukera ematen duela. Dei bat edo mezu bat bidali nahi badizute, zure operadoreak beharrezkoa du jakitea non topatu zure mugikorra, edo zehatzago, bere antenetako zein erabili komunikazioa pasatzeko. Zure kokapena gutxi gorabeheratu daiteke, euren antenetako zeinetatik zauden gertuen. Teknika honen doitasuna, “Cell-ID” deiturikoa, telefono antenen dentsitatearen arabera da. Hirietan 100-200 metrotik bat izango duzu. Baina mendian elkarren arteko baita 35 kilometroko distantziara topatuko dituzu.

Bestelako informazio batzuk erabil daitezke zure lokalizazioaren zehaztasuna doitzeko, adibidez zure mugikorraren mugimenduak telefono sarean zehar, edota beste antenna batzuekiko gertutasuna, mendian kilometro eskaseko doitasunez kokatzeko.

Telefono konpainiak azken garaietan datu guzti horiek hainbat zerbitzu proposatu eta saltzeko erabiltzen hasi dira (LSB zerbitzuak izenekoak): gertu dituzun jatetxeak seinalatzeko; automatikoki libre dagoen eta zugandik gertuen dagoen taxiari deitzeko; publizitate pertsonalizatua bidaltzeko, e.a. Non zauden arabera zerbitzuak zuri

proposatzen hasi dira, baina gainera informazio hori beste batzuei saltzen ere hasi dira. Hainbat operadore zein enpresa, mundu zabalean zehar, jada hasi dira gurasoei euren seme-alabak, edo enpleguak, non dauden jakin ahal dezaten zerbitzua eskaintzen. Euren argudiaketa osoa gurasoen beldurraren erabilpenean oinarritzen da; eta gertatu ohi den bezala, umeen ustezko seguritateak justifikatzen ditu gure pribatutasunarekiko mehatxu berriak, gizarte kontrola areagotzeaz gain.

Gizarte kontrol berri hau hain da cool-a non, Google Latitude-rekin zure lagunak jakin dezaketen, uneoro, non zauden.



Kokapen-teknologia hauen hedapena, larrialdietarako telefono zenbaki zentralizatuen (112 Europan eta E911 AEBetan) ezarpena inposatzen duten legeek azkartua izan da. Larrialdietarako bi zenbakiok eskatzen dutena zera da: Zerbitzua hobetzeko, Larrialdietako laguntza taldeei automatikoki iritsi behar zaiela deitzailearen kokapen geografiko zehatza.

Horrela da gobernuek, telefono operadoreek eta mugikorraren egileek legez egin behar dutela lan elkarrekin, merkatuko mugikor guztien lokalizazioaren doitasuna hobetzeko. Zerbitzu hauetarako adituak doitasun hau gomendatzen dute: 10-150 metro hiri gunetan; 10-500 metro herri gunetan, eta 10-500 metro baserri guneko edo errepideetan.

Lege hauen ezarpenak, LSB zerbitzuen garapenarekin bat, etorkizuneko mugikor-belaunaldi berrietan GPS-aren edukitzea orokortuko du. Mugikor hauek askoz ere doitasun handiagoaz koka daitezke, A-GPS teknologia erabiltzen baitute, telefono-sarean eta GPS kokapenean oinarritutako teknologia-konbinazio berri bat. Azken aldian operadoreak mugikor hauek eskaintzen hasi dira, euren ohiko “zero euroko” mugikorrean, kontratu baten truke.



2.3.-Datuen atxikitzea

Badakite nora joan zaren eta norekin hitz egin duzun azken urte honetan.

Europako 2006/24/EC zuzentarauak, telefono operadoreak eta internet zerbitzuen hornitzaileak derrigortzen ditu 12 hilabetez gordetzera komunikazio elektronikoko guztien jatorria eta helmuga identifikatzeko balio duten informazio guztiak.

📍 Deitzaile eta deituaren telefono zenbakia gorde behar dute. Baita SIM txartelak identifikatzen dituzten IMSI zenbakiak eta telefonoak identifikatzen dituzten IMEI zenbakiak ere.

📍 Zenbaki hauen jabe diren pertsonen datuak ere identifikatu behar dituzte. 2009ko azarotik, aldeztu aurretik ordaindutako txartelak jada ezin dira anonimoak izan eta operadoreek edo identifikatu, edo desaktibatu egin behar dituzte.

📍 Mugikorraren kokapena gorde behar dute, gutxienez antena identifikatzailearekin.

📍 Deia-aren hasiera eta amaiera ordua gorde behar dute, baita komunikazio mota ere (deia, ahots mezua, SMSa, e.a.)

📍 Informazio guzti hauek gorde behar dituzte, baita deia galduekin ere.

🔒 Lege honek ez du baimentzen komunikazioaren edukia azaleratu dezakeen daturik gordetzea.

🔒 Datuok, baimendutako agenteei eman behar dizkiete: Polizia Judizialean jarduten ari direnei; Aduanetako Behaketako Zuzendaritzako funtzionarioei eta Inteligentsia Nazionaleko Zentroko (CNI) kideei.

🔒 Atxikitze epea bi urteetara luza daiteke.

Estatu espainiarrean baimendutako agente hauek ez dute epaile baten aginduaren beharrik datu guzti hauek ikusteko. Kontu honetan, espainiar legeek berme konstituzionalak eta europarrak urratzen dituzte, komunikazioen sekretuaren oinarritzko eskubidea babesten dituzten legeak hain zuzen. Informazio guzti honekin, lasai asko jakin dezakete nora joan zaren azken 12 hilabeteetan, norekin zeunden, norekin zauden kontaktuan, nortzuk diren zure lagunak, non eta norekin bizi zaren, e.a. Zu modu errazago batean lokalizatzea edo entzutekoa baino, zure mugikorraren benetako berrikuntza arriskutsua eta erreala hauxe da: Datuon atxikitzea.

“Jakín nahi badut halakok nire bezeroa ikusi ote duen, ez dago arazorik: lizenak ordenagailuan sartu eta berak ematen dit erantzuna, zehaztuz noiz, non, zenbatetan eta zenbat denboraz.”
Lehengo txakur berberak, 2007ko azaroan.



2.4.-IMSI-catchers-ak.



IMSI-catchers-ak polizia indarrek ekintzaile politiko zein “interes-talde”ak ikertzeko eta zelatatzeke erabiltzen duten beste teknika bat da.

IMSI-catcher bat, esaterako furgoneta batean jarri daitekeen gailu bat da, telefonia mugikorraren operadore baten antena bailitzan.

Behin instalatuta, zonalde horretan dauden operadore honen mugikorrak gezurrezko antena honetara konektatuko dira. Modu honetan, denbora errealean, zonaldean dauden piztutako mugikor guztiak lokalizatzeke eta identifikatzeko balio dute antena faltsuok. Piztutako mugikorrek ezein komunikaziotan parte hartu gabe ere, IMSI-catcher-ean erregistratzen dira eta bere identifikazio datuak bidaltzen dizkiote (telefono zein aparatu zenbakiak).

IMSI-catcher-ak ere komunikazioak entzuteke eta eduki horiek beste norabait bidaltzeke gauza da.

Alabaina, badira hainbat aztarnatxo IMSI-catchers-ak antzemateko. Adibidez, IMSI-catcher bati konektatutako mugikorrek ezin dute sareko komunikaziorik jaso. Teknika hau erabilia izan zen, esate baterako, NATOaren eta G8aren bileren kontrako prestakuntzak eta ekintzak zelatatzeke. Poliziak ekintzaileen zerrendak lortzeke erabiltzen ditu. Adibidez, asanblada batean mugikorra soinean daramatenak identifika ditzake. Ostera, operadoreei eska diezaiekete ekintzaileon azken urteko komunikazioen artxiboak.



2.5.- SITEL

Estatu espainiarreko komunikazioen interzeptazioen sistema integratua da. Barne ministro zenean Raxoik iragarri zuen proiektuaren sorrera eta sistema hori da Zapateroren gobernuak erabili duena 2004tik aurrera. *Gürtel* konjurazioaren eskandalu mediatikoak eman zuen argitara SITELen existentzia. 36 milioi euroko kostua izan zuen, Ericson eta Fujitsu bezalako enpresei ordainduak.

SITELeke poliziari sarrera zuzena ahalbidetzen die:

- "Datuen atxikimendua" atalean aipatutako operadoreen komunikazio-biltegira.
- Momentuan eta zuzenean, 1500 mugikorren komunikazioen edukietara.
- Piztutako edozein mugikorraren kokapenera.

Dirudienez, ez da operadoreen ezein interbentzioren beharrik. Zalantzarik gabe, komunikazio telefonikoez harago, SITELen gaitasuna hedatuz doa interneteko komunikazio elektronikoetaraino.

Egun eztabaida handia dago programa honen inguruan. Hainbat giza eskubideen aldeko elkartek, legelarik, eta nazio zein nazioarteko erakundek SITELen legaltasunik eza salatzen dute, baita bere lege-markoa eta erabilpena ere. Salatzen dute:

- Komunikazio datuak, adibidez kokapena eta parte hartzaileen identitateak, espainiar datuen atxikitzerako legearen arabera epaile baten agindurik gabe kontsultatu ahal direla.

- Komunikazio datuak eta beren edukiak sinadura digitalik gabe entregatuak izan daitezkeela justizi aretoan, alegia: Manipulatuak izan ez direnaren frogarik batere gabe.

- Programaren martxan jartzea ez zela publikoki iragarri; kontrol oroz at funtzionatzen duela; modu ilun batean jarduten dela eta populazio guztiaren funtsezko eskubideak urratzen dituela.

2009ko azaroan, Madrilgo Auzitegi Goreneko fiskalak ohartarazi zuen: Lege-babes horren ezarengatik, SITELen datuak ezin direla lege-prozedura batean frogatzat hartu, prozedura baliogabetu dezaketelako.

🔑 2.6.- Ohitura onak.

Ikusi ditugu mugikorrak gaur egun ahalbidetzen dituen zelatatze aukerak. Suposatzen duen kontrolak berak baino, gehiago ardua digu gure bizitzaren alde intimoetaraino iristen den kontrol sentimenduak. Benetan zelatatuak izaten ari ote garen ala ez, ezin jakiteak. Sentimendu lauso hori, zeinaren arabera ez dagoen kontrol horretaz ihes egiterik. Hezur muinetaraino sartutako beldurrak, eta euren gaitasunen inguruko nahasmenak paralizatu egiten gaitu; gogogabetasunaren alde jartzen da; autonomia ebasten digu ekiteko garaian, gudan errepresio sotil eta prebentibo bat gauzatuz.

Tresna honek "*Panoptiko*"-aren ezaugarri guztiak betetzen ditu horrela: Espetxe bat, non zelatari batek behatu (*opticon*) ditzaken preso (*pan-*) guztiak, hauek begiratuak izaten ari ote diren ala ez ez dakiten bitartean. Foucaultek, "*Zelatatu eta zigortu*" lanean salatzen zuen gizarte eredu bateranzko garapena, erabat antolatua begirada dominatzaile eta zelatari baten inguruan. Gizarte eredu horrek "*ikusmen unibertsal baten proiektua martxan jartzen du, botere gogor eta zorrotz baten probetxuan*". Esku artean dugun gaiari dagokionez, Foucaulten ikusmenaren parte ere entzuketak, trazabilitatea eta lokalizazioa dira.

Zer egin dezakegu?

Paranoia-krisia behin gaindituta, bi aukera dituzu: Bizitzera oihan batetara biluzik joatea, edota zure mugikorraren erabilpen arduratsu bat egitea. Erabilpena izan dadila ahalik eta ez-arriskutsuena. Drogen kontsumoarekin bezala, informatu zaitezke, zure jendearekin bildu eta antolatu arriskuak gutxitzeko, eta kontrol-gaitasuna murriztuko luketen ohiturak jorratzeko.

-Erre ezazu!

Ados, ados, astunak gara.

-Utz ezazu etxean!

Ohiturak alda daitezke. Beti patrikan eduki ordeztu eta etxean soilik arrisku bat denean utzi ordeztu, utz ezazu etxean eta eraman ezazu soilik behar-beharrezkoa duzunean.

-Hitz egiten ari zarenean:

Ez hitz egin jarduera politikoei buruz: Ekintzei, asanbladaei, kanpainei buruz e.a. Pentsatu birritan deitu baino lehen: "*Beste erarik al dago hau komunikatzeko?*" Gaur egun, polizia-fitxategiak berdin interesatuak daude ekintzetan eta frogetan, zein jendarte - sareetan. *Nork ditu harremanak norekin?* Pentsatu baita ere beste batzuen informazioa ematen egon zaitezkeela. Ederra da beste norbaiten bizitza ez kontatzea (bereiziki beste horrek mugikorrak erabiltzen ez badu), e.a.

-Asanblada baten, manifa baten, ekintza baten edo hitzordu erromantiko baten atarian:

Zure mugikorrak deus ez emititzea nahi baduzu, bateria kendu behar diozu, edo hobe: Metalezko kutxa batean sartu behar duzu, "Faraday-ren kaiola" batean bezala. Baina teknika hau nahikoa susmagarria da: Zenbait mugikor kontrolatutako, zonalde berdinean kokatuak, bat-batean aldi berean itzaltzen badira edota sareari konektatuak egoteari uzten badiote...itxura guztia du *zerbait ezkututzen ari direla* edo *zerbait prestatzen ari direla*. Eta aukera ematen dio poliziari urrunetik entzuteko gailuz osatutako entzuketak egitera agertzeko. Beraz, beste behin ere, ohiturarik seguruena mugikorra etxean uztearena da.

-Zure datuak.

Esan bezala, zure mugikorra *hackeatu* egin daiteke eta honek arriskuan jartzen ditu gorderik dituzun datu guztiak: Kontaktu zerrenda, gordetako mezuak, argazkiak, bideoak, agenda, e.a. Gainera, edozein memoria digitalean bezala, datuak urratzen direnean ez dira erabat urratzen eta badaude berriro aurki zitzaketen adituak.

Beste aukera bat zera da: euren sisteman zehar bidaltzen dituzun datu pertsonalak lausotzea, zantzu faltsuak ematea; hitz batean: Big Brother-a nahasi. Gerraren nerbioa dirua da eta teknika batzuekin euren lana zaildu dezakezu, ikerketa askoz neketsu bat egitera derrigortuz datuak lortzeko...inutilak! Gogoan izan ezazu informazio kopurua ikaragarria dela, eta informatizazioarekin ere, datuok tratatzea konplikatua zaiela. Adibidez, AEBen mundu mailako ECHELON zelatatze sistemak hitz-gakoak bilatzen ditu, “kanpaina”, “ekologista erradikalak” edota “Iraultza” bezalakoak. Gailuek oso agindu zehatzei jarraitzen diete, hara hor euren ahulgunea. Espresatzeko beste modu batzuk erabiltzen badituzu (euskarak ez du balio!) nahasi ditzakezu, adi bazabiltza, irudimentsu eta kontziente.

2009ko azarotik aurrera, mugikor guztiak norbaiten datuekin identifikatuak egon behar dira. Interesgarria izan daiteke zure txip-a beste norbaitenarekin aldatzea. Zure txip-a ere bidaiatzera bidali dezakezu, lagun batekin. Zure txip-aren bizitza zurea ez izatea lor dezakezu...



3.-Kontrol soziala.



3.1. Isolatuagoa.

Zein da telefono mugikorraren garaipen komertzialaren arrazoi nagusia? Bada marketing-aren propaganda makinak jakin zuela jasotzen eta saltzen, lehia ekonomikoan itotako mundu hau suntsitzen ari dena: Jendarte harremanak.

Botere sistemek ohikoa dute, eurek erangindako matxurentzako konponketa moduak eta gailuak saltzea. Ez duzu zure auzokoarekin hitz egiten telebistaren erruz? Dei iezaiozu! Telefonía enpresek ulertu dute zer nolako etekina atera diezaioketen pertsona gutxietsiari, hersturak jotakoari; komunikatzeko edo arrotzari gerturatzeko ezinduari. Bere publizitateak beltzean koloreztatzen du pertsona hauek sortzen dituen jendartea. Zertarako beharko genuke bitartekaritza elektroniko bat, ez bada norbanakoa geroz eta gehiago atomizatzen duen mundu batetara moldatzeko?

Teorian (hori da esaten digutena), mugikorrak zure senideekiko harremanak sendotzeko balio du, baina praktikan batez ere ezezagunekiko kontaktua saihesteko balio digu. Hainbeste jende ikusi dugu bere mugikorrari heldua, distantziatik gidatu zitzaten. Norabidea bertan zegoen jendeari galdetu ordez; ezezagun batekin hitz egitera arriskatuz, hurbiltasuna adieraziz. Begira metroan, zombi horiek ibilian, euren pantailatxoek sorginduta, egunero ikusten duten hari mezutxo bat idazten, ingurukoekin begirada ez gurutzatzearren.

Béatrice Fracchiolla frantziar soziologoaren arabera, auzoen suntsiketa ekarri du hiri erraldioen hedapenak; horrek komunitate-sentimenduaren galera ekarri dio giza -

zomorroari. Mugikorren erabilpenaren bidez, komunitate sentimendu hori eta hiri-espazio kaotikoak ber-konkistatzen saiatzen gara, baita gure mugikortasuna ere.

Mugikorra, alabaina, izan nahi duenaren kontrakoa da: Komunikazio-tresna bat. Zenbat denbora da jada ez duzula solasaldi bat izan, telefono dei batek eten gabe? Baldintzatuak gaude eta normala deritzogu, baina begira gaitezen kanpotik: Ahoa erdi zabalik, gure mintzakidearen erantzute-keinuak paralizatuta, deiari erantzuteagatik guri esaldia amaitzen uzteagatik baino arduratuagoa. Horrela daude gauzak.

Mugikorra gizarte-arau bilakatu da eta, edozein arauk bezala, errespetatzen ez dituenak baztertzen ditu eta denon bizitzak baldintzatzen ditu.

Teorikoki, mugikorrak artifizialki konpondu behar ditu ekoizpen eta kontsumo makina baten engranajean bihurtu gaituen mundu honen matxurak, kalteak. Seguraski arrazoi dute telefonia enpresek, mugikorren arrakasta mundu potentzialki etsai batekiko beldurrari egozten diotenean. Zalantzarik gabe, interes handia dute etsaitasun sentimendu hori indartzen, komunitateen eta gizarte-ehunaren higatzeak sortutako sentimendua.

BOBek: *Aspaldi esan nahi nizun, zera...*
ALICEren telefonoak: *Bip bip bip!!!*
ALICEk: *Kaka, Bob! Ez daukat berarekin hitz egiteko gogorik! (Deia hartuz):Kaixo guapa, zer moduz!*



3.2: Txepelagoa.

Mugikorraren efektu nagusietako bat, erabiltzaileengan sortzen duen menpekotasuna da; bera gabe antolatzeko eta bizitzeko autonomia eza. Besteekin koordinatzen lagundu beharko ligukeen protesiak elbarritasuna sortuko baligu bezala.

Kotxeekin, hiritarrek jada ez dakite oinez edo bizikletaz ibiltzen, baina kexu dira gizentasunaren “epidemia”, trafiko-butxadurei buruz, kutsaduraz, petroleo-gerrei buruz e.a. Ez zaie burutik pasa ere egiten, lurra oinekin ukitzea. Ahaztu zaie kotxerik gabe nola bizitzen den eta ahanztura hori anputazio bat da. Protesiak gorputz atala ordezkatu du eta poliki-poliki elbarritasun bihurtu da.

Mugikorra tresna zoli bezala saltzen duen marketing-ak logika berdina du oinarrian. Beha ditzagun mugikorren erabiltzaileak, erabat ezgauz espaziotik mugitzeko, hitzordu batera garaiz heltzeko, hamar minutuz deitzearen panikoan erori gabe itxaroteko ezgai. Mugikorrik gabe norbaitekin geratzeko moduak irudikatzeko ezgai. Norbait bere tokian trikimailu hori gabe aurkitzeko ezgai.

Hemen, norbanakoaren autonomia protesik honek pixka bat maspilduagoa topatzen dugu. Mugikorrari esker, ez duzu gerta dakizkizukeen arazoei aurrea hartu beharrik. Ez eta egunerokotasunaren ezusteei aurrea hartzeko zure baitan tresnarik bilatzekoa ere. Eta gure buruei galdetzen diegu: Nola egiten zuten lehengoek? Nolatan galdu ahal izan ditugu hamar urte eskasetan gure artean komunikatzeko eta antolatzeko modu guztiok, mugikorrari halako garrantzia emanez?

BOBek: *”Kaixo, ni naiz. Zure etxeko atarian nago. Zein da zure solairua?”*



3.3.- Sogileagoa.

Urte batzuetatik hona, karga polizialek eragiten dutena mugikorrekin eta argazki kamarekin egindako jaurtiketak dira, beste ezer baino. Manifestazio batean hainbeste jende gertatzen ari dena kontatzeko deika dabilenean, gertatzen ari dena bizitzen egon ordez; sumindura, sormena edota amorrua adierazten egon ordez, *“zuzenean bizi genuena irudipen baterantz alendu da”*, Guy-Ernest Debord-en hitzetan.

Teknologia honen alor berritzaileenetako bat zera da: beti dagoela erabiltzaileen sakeletan. Jada ez da tresna arrunt bat, behar duzunean hartzen duzuna. Haatik, bera dihoakizu bila, edonoiz. Edozein momentutan eta zeinahi arrazoiengatik deika has dakizuke, zure egitasmoak aldatuz, zure egunerokotasunean sartuz. Mugikorra oraina bizitzeko balazta bat da, eta hori du bere jendarte-ondorio miserableetako bat. Ezagutzen ez duzun toki batean bazaude, zertarako arriskatu zure burua taberna arrotz batean pote bat hartzen, adiskide bati deitu ahal badiozu, leku jator bat seinalatzeko? Mugikorren erabiltzaileek, euren bizi-presentziari sorgor, mezutxoak bidaltzen dizkiete elkarri, bizitzaren trenak paisaia ezezagunak zeharkatzen dituen bitartean. Zertarako behatu urrunagora?

Mundu geroz eta konplexuago batean, bizitza bera bizitzari buruzko iruzkintxo batean bihurtzen laguntzen du mugikorrak. Errealitatea lagin bihurtze horretan orain mugikor guztiek dakartzaten argazki-kamara eta bideo-kamara horiek laguntzen duten bezalaxe.

BOBek: *“John Zerzanen hitzaldia ikusi dut CCCBan. Dmasa, txo! 2deoa 2daltzen dizut”*
Bartzelona, 2009ko maiatza.



4.- ARDURATSUAK?



4.1.-Kapitalari dirua ematen dio.


Etsaiari ezta urik ere? 2009ko apirilean, merkatu espainiarra hiru operadoreen esku zegoen, %95ean: Garai batean zerbitzu publikoa zen *Telefónica*-ren mugikorren filiala den Movistar-enetan; Vodafone-renetan, enpresa ingelesa, eta Orange-renetan, garai batean zerbitzu publikoa zen France Telecom-en mugikorren filiala.

Azken hamarkaden bilakaera neoliberalaren eredu dira enpresa hauek. Lehenik, sekulako dirutzak irabazi zituzten 90. hamarkadan, pribatizazio uholde batek Europa zeharkatu zuenean. Ostera kapital handiaren super-harraparietan bihurtuz joan dira, hitz potolotxo batzuen bidez: merkatu-irekitzeak, fusioak, holding-ak, join venture-ak, oposizio publikoak e.a. Behin merkatua liberalizatuta, euren partekatutako monopolioa aprobetxatzen dute, prezioa altuak finkatu eta adosteko eta horrela euren mozkinak handitzeko. Liberalismoaren enegarren hipokrisia, zeinaren arabera konpetentziak

bezeroaren alde jokatzeko duen. 2007an Espainiako Konpetentziaren Nazio Komisiaok zigor espediente bat zabaldu zuen hiru operadore hauen aurka, ustezko prezioen adosteen akusaziopean.

Langileriaren kudeatze-sistema modernoek ere bere egin dituzte, beren langileen estres eta kontrol mailen igoera larri bat sortuz. Ildo honetan, France Telecom-eko zuzendaritzak onartu behar izan zuen 2008 eta 2009 urte bitartean bertako 32 langilek beren buruaz beste egin zutela. Bien bitartean, mugikorraren espainiar konpainiek 6 milioi euro irabazi zituzten 2009. urtean, gabon eta urtezahar gauetan bezeroek bidalitako SMSengatik soilik.

MacDonalds, Coca-Cola edo Monsanto bezala, kapitalismoaren enpresa eredugarriak dira eta Europa konkistatu ostean, Hegoko herrien merkatuak konkistatzen dituzte egun. Eta kasualitatea balitz bezala, merkatuen banaketan kolonialismo-inperio zaharrak errepikatzen dira. Honela. Telefónica (Movistar), enpresa espainiarra, aitzindaria da Latinoamerikan. Orange, France Telecom-en oinordekoa, lehena da Afrikako Sahara azpiko hainbat herritan eta Vodafone, enpresa ingelesa, Commonwealth-eko herrietan da lehena (India, Australia, Hego Afrika, e.a.)



Telefonica espainiar merkatuaren %43aren jabe da eta Latinoamerikako bigarren multinazionalik indartsuena da, General Motors-en atzetik. Zonalde horretan duen salmenta kopuruei erreparatuta soilik, ohartzen gara espainiar mundu mailako enpresarik handienarenak bikoizten dituela, Repsol YPF-renak alegia. Bikoiztu. Movistar-en datuak benetan ikusgarriak baitira: 2009an 36 herritan zegoen kokatuta eta 261 milioi bezero zituen.

Europar Komisiaoren datuen arabera, Europako telefonia mugikorraren prezioak begiratuta, estatu espainiarrean ziren garestienak 2008an, eta 2007az geroztik igo ziren bakarrak. Zerbitzu berdinarengatik, Italian 19 euro ordaintzen ziren, Holandan 10 eta espainiar estatuan 36.

Sistemaren aurkako mila lagunek hilean euren mugikorrean 36 euro gastatzen badute, urtean 432 000 oparitzen dituzte. Enric Duran-ek atera zuen dirua da, gutxi gorabehera. Diru hori aurreztuta, zenbat ekimen gutxiago antolatu behar, sosak ateratzeko? Zenbat diru-kanpaina gutxiago, presoen sostengurako? Zer nolako hauspoa gure proiektuen autogestiorako? Zenbat ordu gehiago guretzat, lanera joan behar izan gabe?



4.2.-Haizea erosten du.

Publizitate-teknika erasokorrenek mugikorra ezinbesteko tresna zaigula onartzera eramán gaituzte. Baina arroparen edo kotxeen kasuan bezala, merkantziaren zentzua bere hasierako funtzioaz harago doa, eta orain gehiago da fetix bat. Marketing-ak gailu hau saltzen du, lagunek elkarri deitzeko bainoago, bere jabearen klase soziala adierazteko. Eta zure kontaktu-zerrenda aberastasun zentzu gisa hartzen da. Zure mugikor demasa ateratzen duzunean zure ingurukoek berehala ulertzen dute dirua duzula eta bizitza sozial ikaragarria.

“Ezberdina zara. Beste belaunaldi batekoa zara. 6 belaunaldia.”

Orange-ren publizitatea, 6 zentimoko balioa duten zerbitzuen kontratu batean oinarrituta.

Nortasun berri bat saltzen dizute. Soinean mugikor bat eramatearen arauarekin konforme bazaude (gazteen %90a bezala), oraindik ezberdina izan zaitezke, norbanako bakar izatearen sentimendua izan dezakezu, nortasun propioarekin...ezaugarritzen gaituena daukaguna dela ontzat ematen badugu.

Kasu honetan gazteak dira, baina familiak, negozio-pertsonak, umeak, etorkinak...denok gaude merkatuaren ituan.

Suitzar mizto berria bezala salduak, mugikorrak erabil daitezke ordulari bezala, iratzargailu bezala, agenda bezala, MP3 irakurle bezala, argazki-kamara bezala, bideo -kamara bezala, telebista txiki bezala, ordenagailu eramangarri bezala, joko-gailu bezala...eta baita telefono bezala ere. Etengabeko bilakaera honi esker lortzen da, batez ere, eskaintza biderkatzea. Eta atzean geratu nahi ez baduzu, beste bat erosi beharko duzu urtebete baino lehen. Horregatik, mugikorren kopuruak, espainiar estatuan, biztanleen kopurua laukoizten du. Horrek dituen ondorio ekologikoekin. Baina jakina: Nori axola dio horrek? Burugabekeria kolektiboa, masa-kontsumoaren jendartearen ezaugarri nabarmenetakoa da.

Baina kapitalismo berdearen garapenarekin, operadoreek ere euren burua zuritzen dute, euren faktura berriak sustatuz (paperik gabekoak), konpromiso ekologista gisa. Egiak, etekin handiagoak ateratzea ahalbidetzen die, eta “zerbitzua” oraindik eta gehiago bihozgabetzea. Arazoren bat baldin baduzu, edo zure kontratua bertan behera utzi nahi baduzu, telefono zenbaki batetara deitu beharko duzu: hasiera baino ez da izango. Hau dena horrenbeste zaildu da non kontsumitzaileen kexen erdiak baino gehiago jada telekomunikazioen enpresen aurkakoak diren.

Etxebizitzetako hipoteketan bezala, mugikorren enpresek hilean ordaindu beharreko kontratuak “eskaintzen” dituzte. 2009an, estatu espainiarrean, mugikorren kontratuen erdia baino gehiago hileroko fakturen modukoak ziren. Jakina: Ordaintzen duzunez, bada kontsumitu ezazu! Beste adibide bat baino ez, nola eskaintzak eskaera sortzen duen; nola merkatuaren legeak eta publizitateak beharrak sortzen dituzten.

Behinik behin bitxia dela esan genezake, nola etekinetan milioiak eta milioiak metatzen dituzten eta legea bortxatuz prezioak altuan adosteagatik epaituak izan diren enpresa hauen publizitate-amu nagusia prezioa izatea. Mendebaldeko merkatua izugarri

beteta dagoenez, eta konpainia guztien zerbitzua berdin-berdina denez, saltzeko gauza gutxi geratzen zaie. Hor dator publizitate astuntasuna. Eta azken urteetan are eta gehiago, “doan” kontzeptuaren gehiegizko erabilpenarekin. Kontsumitzeko era hauekin, beste adibide bat abioi konpainia “Low Coast” delakoak dira. Prezioa balioaren errealitatetik erabat aldenduta dago, baina arma estrategiko gisa erabiltzen dira bezeroak limurtzeko eta ondo tratatzen dituztenaren sentipenak sortzeko.

Ideologia liberalak aro hau honela definitzen du: Guztia mugitzen da etengabe, ez dago egonkortasunik, malgua izan behar zara. Operadoreek publizitatean hain ondo zabaltzen dituzten ideiak. Baina nahi ez dutena da kompetentziara joan zaitezen. Beren esparrua defendatzen dute eta horregatik garatu dute “puntu” sistema bat, kontsumitzailearen leialtasuna saritzeko.

“Esateko ezer ez izanda ere dei dezakegu...debalde delako.”
Orange publizitatea.



4.3.-Garuna erretzen du.

Transgenikoen, amiantoaren eta nuklearraren gaietan bezala, interes ekonomikoak jendearen osasunaren gainetik jartzen dira.

Biolnitiative Taldeak 2007an txosten bat argitaratu zuen (<http://www.bioinitiative.org/report/>). Bertan, gai honi buruzko zientzian lan zientifikoen bilduma bat egiten da, uhin elektromagnetikoek gure biologiaren gainean duten eraginei buruzkoak. Zientzialari eta osasun publikoko aditu independente hauen lanak haririk gabeko teknologien uhin elektromagnetikoen osasun kalteen frogak aurkezten ditu: GSM eta UMTS uhinak telefoniaren alorrean; WI-FI, WiMax, Bluetooth uhinak informatikaren alorrean, eta abar.

☛ Umeei leuzemia eragin ahal diete.

☛ Garun-tumoreak eta neurinomak sor ditzakete.

☛ Bularreko minbiziarentzako arrisku-faktorea dira.

☛ Alzheimerarentzako arrisku-faktorea dira.

☛ Garunaren aktibitate elektrikoari eragiten diote.

☛ DNA kaltetu dezakete.

☛ Sistema immunologikoa kaltetu dezakete eta hanturazko erreakzioak sortu, erreakzio alergikoak, edo funtzio immunologiko arruntetan aldaketak.

Frogatuta dago espainiar eta nazioarteko araudien uhin intentsitate mugak arriskutsuak eta ezegokiak direla. Lehenik, telefonia konpainietako adituen eta ingeniarien aholkuen arabera finkatu zirelako, oraindik zientziak uhin hauen osasunaren gaineko inpaktuaz askoz gutxiago zekienean. Bigarrenik, kontuan hartzen den bakarra uhinen efektu termikoak direlako, alegia: Gure gorputzetan sortzen duten beroketa (mikrouhinen gisara funtzionatuz). Baina orain gauza jakina da, efektu termikoez gain, (uhinen energiaren intentsitatearekin zuzenean erlazionatzen direnak), badaudela ere efektu ez-termikoak, zirikusia dutenak uhinen frekuentziekin, informazioarekin eta beste ezaugarri batzuekin, baita oso intentsitate baxuetan ere. Eta azkenik, ez dituztelako aintzat hartzen epe luzerako efektuak, hots: zer kalte eragin dezaketen urteetako eta urteetako esposizioaren ondorioz.

Telefonia mugikorraren antenen ondoan bizi diren pertsona asko eta asko kexu dira aspaldi-aspalditik: Logabezia, nekea, buruko mina, bertigoia, kontzentrazio arazoak, memoria arazoak, oreka eta orientazio arazoak, belarrietako mina, gauza ezberdinak aldi berean egiteko zailtasunak...Hainbat elkartek hau dena salatzen dute, gobernuai presioa

egiten diete antenen emisioen legezko mugak alda ditzaten, gailuen erabilpen arduratsuaren inguruan informazioa zabaltzen dute eta lege-babesa eskaintzen diete biktimei operadoreen aurkako epaiketetan.

2009an Frantzian lehen aldiz epaile batek Bouygues-Telecom kondenatu zuen bere antena batzuk desmuntatzera, Lyon ondoko herrixka batetako bizilagunen osasunari kalte egiten zitelakoan. Epaileak “zuhurtziaren printzipioa” aintzat hartu zuen, uhinen kaltegabetasuna ez baitzen frogatutzat eman, bereziki beren efektu ez-termikoena, eta bere sententzia hainbat zientzialarik eta medikuk azken hamar urteetan egindako deklarazioetan oinarritu zuen.

Espainiar estatuan, 2009ko abenduan, Leganés herriko udalak ordenantza aintzindari bat argitaratu zuen: Telefonia mugikorraren antenen emisioak mugatzen zituen, 0,1 mikrowatt zentimetro koadroko, zientzialarien komunitateak gomendatutakoa hain zuzen. Udalak nahi duena zera da: Emisioak espainiar estatuko gainerako antenen emisioak baina lau mila bider baxuagoak izatea. Lau mila.



4.4.-Mugikorra Hegoaldean.

Herri aberatsetan, “merkatu barneratzea”-ren mailak beteegiak daude: espainiar estatuko populazioaren % 109ak mugikorra dauka (sic). Hegoa, pobreagoa izanda ere, milaka milioien pertsonen merkatu bat eskaintzen du, nori saldu teknologia hauek merkeago.

Kotxe baten edo ordenagailu baten kasuetan ez bezala, mugikor bat eskudiruz eros baitaiteke, eta diru asko xahutu arazi ahal dizu gutxika-gutxika. Modu honetan, jada ez duzu zure burua hipotekatu behar mendebaldekotutako bizitza-zati bat eros ahal dezazun. Esklabotza ekonomikoaren kateak menpekotasunaren itxura hartzen du.

2003an, Indiako taberna eta jatetxe herrikoi gehienak Coca-Colak edo Pepsik pintatuak zeuden. “Taberna doan pintatuko dizugu, gainera mendebaldeko itxura emango dio.” Iaz, Mozambiken, horma, kanpoalde eta denda guztiez gain, orain Vodacom edo M-Cell-en koloreekin, jendea ikus zitekeen pintatuta, operadoreek jantzita, aldezturik ordaintzeko txartelak saltzen kale-kantoi bakoitzean.

Koltana, gailu elektroniko guztien osagaien fabrikazioan erabiltzen den minerala da. Bere erauzte guneetako batean, Kongoko ekialdean, koltanaren kontrolerako borroka Herriak bizi duen gatazka armatuaren arrazoietakoa bat da. Koltanaren salmenta finantziazio- iturria baita, Mendebaldean fabrikatzen ditugun armak erosteko. Gerra baten erdian afrikar meatzari hauen lan baldintzak irudikatzen utziko dizuegu. Zonalde hau zen baita ere gorila handien Afrikako mendietako azken abaroa.

Globalizazio kolonialista berriaren mekanismoetan ohikoa den bezala, Mendebaldeko bizi maila eta estiloak bere ondorio petralenak inposatzen ditu Hegoaldeko herrietan. Ekoizpenetik hasi eta zaborreraino. Mendebaldeak ekoiztu bai baina kudeatu nahi ez dituen zabor teknologiko tonek hegoaldean amaitzen dute. Batzutan aitzakia “humanitario”ekin bidaliak, balioa duten metalak baldintza terribleetan birziklatzen dira. Bere produktu toxikoak eta plastikozko kuxkak edonon isurtzen dira, ahal dela zingiretan.

“Leveraging mobility to help enrich the lives of individuals across the developing world”

GSM World.



4.5. Tira...

Proiektu honen ideia partekatzen hasi ginenean, interes edota zalantza politikoaren edo sozialen ordean, txantxak entzun genituen. Egungo zinismoarekin kontsideratzeak gaia serio hartzea ahalbidetuko baligu bezala, geure ohiturak ezbaian jarri gabe.

Baina erantzunak entzun ostean, badirudi askorentzat argi dagoela: Mugikorra Gaizkia da. Gure burkiderik politizatuenean mesfidantzaz begiratzen diote, Big Brother-aren beste begi bat bailitza. Areago: Lankide batzuk, mugikorrak ez daukagula esaten diegunean, erantzuten digute: “*A zer zortea!*”, edo “*Niri ikaragarri gustatuko litzaideke*” edo “*telebista bezalakoa da, ez du balio*”. Alabaina, ia mundu guztiak dauka bat, egunero erabiltzen du birritan pentsatu gabe, integratua dauka bere bizimoduan, izaeran...

Eta, erabaki dezakezu?

Erregimen kapitalistarekin edo mugekin bezala, badirudi ez dagoela aukerarik: Mundua horrelakoa da eta ohitu beharko ginateke. Baina gai hauetan bezalaxe, mugikorraren inposizioa ezbaian jarri dezakegu, “garapenaren” ustezko adostasuna, eta erresistentzia lana egin, alternatibak sortu.

Eta orain, zer egin?

-Lehen aukera zera da, lehen bezala arduratu gabe aurrera egitea, gehien jota kontzientzia txar apur batekin.

-Bigarren aukera da zure mugikorraren erabilpen modua auzitan jartzea. Dei hau egitea beharrezkoa zait, ala beste era batean antolatu naiteke? Nirekin dagoenari enbarazu egiten diot nirekin hizketan dagoen bitartean mezutxo bat idazten badut? Zergatik noa nire mugikorrarekin hitzordu batetara, etxean utz dezakedanean? Mugikor bakarra pertsona multzo batek partekatu al dezake, hainbat kotxe edo ordenagailuekin egiten den bezala?

Hirugarrena, hautu benetan iraultzaile bakarra, hau da: Ulrike Meinhof-ek zioen bezala pentsatzea: *Arazoaren parte zara edo soluzioaren parte zara*, eta zure mugikorra suntsitzea, kapitalaren, espektakuluaren gizartearen, inperioaren eta gainerako guztiaren kontrako ekintza zuzen bortitza eta askatzaile batean. Jauzi ausart hau aprobetxatzea subjektibitate kolektibo erradikal bat garatzeko, harremanak lantzeko beste modu batzuk, komunikatzeko, antolatzeko...

Baina egiaz ez da horren sinplea. Mugikorrarekin, beste gauza batzuekin bezala, hautua ez baita norbanakoarena soilik; arrazoi eta ondorio kolektiboak izan badituelako ere. Mugikorrak guztion ingurugiroa kutsatzen du, baina baita gure espazioak eta soziazialitatea ere. Segurtasun aldetik guztioi eragiten digu, inguratuak gaudelako bai ala bai.

Mugikorraren erabilpen konpultsiboak egungo jendarte eredu eta komunikazio arauak eraikitzen laguntzen du. Arazoa kolektiboa baldin bada, soluzioa ere kolektiboa izan behar da. Askoz errazagoa eta eraginkorragoa izango da antolatzeko eta komunikatzeko era berriak sortzea, mugikorraren menpekotasunetik at, zure jendeak ere kontuan hartzen baldin badu. Hitz egin auzi honi buruz sukaldian. Utz ezazu idazlan hau zure lagunaren komunean. Eztabaidak piztu zure antolakundean, zure lagunartean.

Kritikak baldin badituzu, ekarpenak edota proposamenak, e-mail bat bidali ahal diguzu: quematumovil@pimienta.org.